

## V - BESTELAKOAK

### URAREN EUSKAL AGENTZIA MEDITERRANEOKO ARROEN BULEGOA

#### **Arabako Kuartangoko udalerrian Aprikanoko herritik datozen hondakin-urak isurtzeko baimena**

Espediente-zenbakia: VDP-A-2021-0023.

Eskatzailea: Miomako Administrazio Batzarra.

Aprikanoko Administrazio Batzarrak baimena eskatu du Kuartangoko udalerriko Aprikanoko herritik datozen hondakin-urak arazteko, arazketa-sistema berri baten bidez tratatzeko. Horretarako, dagokion dokumentazioa aurkeztu du.

Hori guztia jendaurrean jartzen da, guztiak jakinaren gainean egon daitezen, hogeita hamar egun balioduneko epearen buruan, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita, eskatu den baimenaren ondorioz nolabaiteko kalteren bat hartuko dutela uste dutenek erreklamazioak aurkez ditzaten lurralde-bulego honetan (Forondako Atea kalea 9, 01010 Vitoria-Gasteiz). Espedientea han egongo da ikusgai.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko abuztuaren 26an

*Ur-probetxamenduen arduraduna*  
**AITOR BELDARRAIN URIONDO**